



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 19a

8. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua (2. or.).

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2023ko urtarrilaren 9ko Mahaiaren erabakiaren bidez Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua onetsi zen. Geroago, Erregelamenduaren testuan hobekuntza batzuk egin ziren, eta Mahaiari igorri zitzaion berriz azter zezan.

Hori dela-eta, aipatu Erregelamenduaren behin betiko testua ikusita eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatuarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua onestea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroako Parlamentuko Artxiboari eta Dokumentuen Kudeaketari buruzko Erregelamendua**

### **ZIOEN AZALPENA**

Parlamentuko Mahaiak Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Arauak onetsi zituen 2000ko maiatzaren 15ean. Erregelamendu honek eguneratu egiten du arau horietan ezarritakoa, bat etorritik Artxiboari eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearekin eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearekin. Arau multzo honen bidez erantzun nahi zaio Administrazioaren funtzionamenduak hartu duen konplexutasun gero eta handiagoari, doku-

mentuen kudeaketaren, kontserbazioaren eta sarbidearen alorrean.

Artxiboen ohiko funtzioa, hau da, behin betiko dokumentuen babesa eta zaintza, eboluzionatzen joan da denboran zehar. Gaur egun, etenik gabeko ziklo bati lotutako tratamendua egin behar da dokumentuen kudeaketan. Izan ere, dokumentuen kudeaketari lotutako funtzioak hasierako fasean abiatzen dira, dokumentuak jasotzen edo sortzen direnean, eta amaierako xedatzera arte irauten dute, hots, dokumentuak deuseztatzen edo modu iraunkorrean gordetzen diren arte. Horretarako, Nafarroako Parlamentuan, Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea organoa arduratzen da, beste eginkizun batzuen artean, dokumentazioa baloratzeaz eta epeak ezartzeaz transferentziarako, sarbiderako, eta kontserbazio edo deuseztatze osorako edo partzialerako.

Artxiboari buruzko zeharkako ikusmolde berri horrek erakunde osoari eta haren prozedurei eragiten die, eta lege esparru egoki bat eskatzen du, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei funtsezko rola ematen dien administrazio baten betekizun eta eskakizunei erantzunen diena, Administrazio elektronikoa ezarriz eta paperaren ordean pixkanaka bestelako euskarrien erabilera zabalduz.

Ikuspegi horretatik, artxiboak, erakundearen administrazio-jardunaren funtsezko osagaitzat hartuta, dokumentu eta espediente elektronikoen eta fisikoen fidagarritasuna, benetakotasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna zaindu behar ditu, Estatuko eta nazioarteko araudi eta gomendioetan jasotzen den moduan.

Bestalde, Administrazio parlamentarioak gardena eta publikoa izan behar du definizioz. Herri-tarrek, parlamentariak eta erakundeko langileek informazioa eskuratzeko duten eskubidea parlamentuen funtzionamenduaren oinarrietako bat da. Beraz, artxibo parlamentarioak funtsezko osagai izan behar du irispide eta gardentasun politika horretan.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, Nafarroako Parlamentuak erregelamendu honen bidez arau esparru orokorra ezarri nahi du, bere dokumentu-ondarea zaintzeko prozedurak eta teknologiak hobeto integratu ahal izateko.

## I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea

Erregelamendu honen xedea da Nafarroako Parlamentuko dokumentuak kudeatzeko sistema arautzea eta, halaber, Artxiboaren antolaketa eta funtzionamendua zehaztea, dokumentazioa antolatu, babestu eta zaintzeko, edozein formatutan dagoela ere, eta Legebiltzarreko kideen, erakundeko administrazio-zerbitzuetako langileen eta herritarren eskura jarri ahal izateko.

### 2. artikulua. Dokumentu-ondarea

1. Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-ondarea erakunde parlamentarioaren funtzionamenduan zehar sortu, gorde edo bildu diren dokumentuen multzoa da.

2. Honako hauek sortu, gorde edo bildu dituzten dokumentuak ere Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-ondarearen parte izanen dira:

a. Nafarroako Parlamentuak beste erakunde edo entitate batzuekin batera sortutako organoak, baldin eta hala ezartzen bada berariaz sinatutako lankidetzak-hitzarmenean.

b. Parlamentutik kanpoko pertsona fisiko edo juridikoak, Legebiltzarrak delegatu edo kontratatutako jardueretan ari direnean.

c. Parlamentuari beren dokumentuen dohaintza edo lagapena egiten dioten pertsona fisiko edo juridikoak, Parlamentuak dokumentu horiek onartu baditu gordailu-akordio baten bitartez.

### 3. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Erregelamendu hau aplikatuko zaie Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-ondarea gaur egun osatzen duten edo gerora osa dezaketen dokumentu publiko edo pribatu guztiei.

2. Dokumentutzat joko da edozein motatako euskarri material batean ahoz edo idatziz, hizkuntza naturalean edo kodetuan, jasorik dagoen adierazpen oro eta irudi grafiko edo soinu oro, edozein izanik ere hura sortzeko erabilitako teknologia, baldin eta Nafarroako Parlamentuaren jardueren eta eginkizunen lekuko bada. Ez dira kontzeptu honetan sartzen espediente administratibo edo parlamentario baten parte ez diren argitalpenak.

## II. KAPITULUA Nafarroako Parlamentuko Artxiboa

### 4. artikulua. Nafarroako Parlamentuko Artxiboa

1. Nafarroako Parlamentuko Artxiboa Parlamentuko organoek sortutako edo jasotako dokumentuen multzo organikoa da, edozein direla ere haien forma eta euskarri materiala; dokumentuok artxibo-metodologia erabiliz zaintzen dira, beren fidagarritasuna, benetakotasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna bermatuta.

2. Hauek dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboa osatzen duten dokumentuak:

a. Erakunde parlamentarioaren beraren prozeduren esparruan sortu edo jasotako dokumentuak.

b. Berariaz arauturik egon gabe ere informaziorako eta ezagutzarako elementu gisa balio duten dokumentuak.

c. Euskarri bereziak dituzten dokumentuak (mapak, planoak, argazkiak eta ikus-entzunezkoak).

d. Datu automatizatuen fitxategiak.

e. Kontserbaziorako, sarbiderako eta zabalkunderako digitalizatzen diren dokumentuak.

3. Erregelamendu honen ondorioetarako, Nafarroako Parlamentuko Artxiboa deitzen zaie, baita ere, aipatu sistema koordinatzeko ardura duen unitateari eta hura kokatuta dagoen zentroari. Nafarroako Parlamentuko Artxiboa arlo horretako eskumenak dituen zerbitzuari atxikita dago, Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren arabera.

### 5. artikulua. Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren eginkizunak

1. Nafarroako Parlamentuko Artxiboak eginkizun hauek ditu:

a. Bere antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko proposamenak, arau teknikoak eta jarraibideak egitea.

b. Definitu, inplementatu eta garatzea Nafarroako Parlamentuko dokumentuak kudeatzeko sistemen prozesuak, hain zuzen ere, dokumentu-serieen identifikazioari, dokumentu zirkuituei, sailkapenari, deskribapenari eta dokumentaziorako sarbideari dagozkienak, prozedurak normalizatu eta sistematizatzeke eta kudeaketa eraginkor eta segurua sustatzeko.

c. Kudeaketa-artxiboetan gordailututako dokumentazioaren tratamendurako irizpide teknikoak ezartzea.

d. Erregelamendu honen I. kapituluaren ezarritakoaren arabera bildutako dokumentuen zaintza eta artxibo-tratamendu egokia gauzatea; helburua da dokumentazio hori babestu eta kontserbatzea Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-ondare gisa.

e. Erakunde parlamentarioaren dokumentu-serieen balorazioa egitea, eta kontserbatzeko edo deuseztatzeko proposamen zehatzak egitea Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeari.

f. Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-funtsak deskribatzeko tresnak prestatzea, sarbidea eta zabalkundea erraztearren.

g. Erakundearen informaziorako eta dokumentaziorako sarbidea eta kontsultatzeko aukera ematea Legebiltzarreko kideei, administrazio-zerbitzuetako langileei eta herritarrei, indarra duen araudiari jarraituz.

h. Legebiltzarraren irudi- eta soinu-dokumentuen funtsak zaindu eta antolatzea.

i. Dokumentu-funtsak babesteko teknika espezifikoak aztertzea, proposatzea eta, bidezkoa bada, erabiltzea, batez ere euskarri sentikorrenak dituzten dokumentuetan, dokumentu elektronikoa edo magnetikoetan, esaterako.

j. Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-ondarea aztertu, ikertu eta hedatzeko jarduerak sustatzea.

k. Zerbitzu Juridikoek egiten dituzten azterlanetan laguntzea.

l. Gorte Nagusiekin, autonomia-erkidegoetako legebiltzarrekin, udalekin, unibertsitate-erakundeekin eta beste erakunde batzuekin dokumentu- eta argitalpen-trukeak ezartzea, Mahaiak onetsitako jarraibideak beterik.

m. Parlamentuko organoei eta gainerako zerbitzuei aholku ematea aipatutako gaietan.

n. Parlamentuko organoen funtzionamendutik heldu den bestelako eginkizun oro, edo lehendakariak, Mahaiak nahiz legelari nagusiak, beren eginkizunak betetzean, agindutakoak.

### III. KAPITULUA

#### Nafarroako Parlamentuko dokumentuak kudeatzeko sistema

**6. artikulua.** Nafarroako Parlamentuko dokumentuak kudeatzeko sistema

1. Nafarroako Parlamentuko dokumentuak kudeatzeko sistema eragiketa eta tekniken multzo bat da, kudeaketa administratibo orokorrean txertatua, dokumentuen sorreraren, tramitazioaren

eta balioen analisisian oinarritua, eta helburu du dokumentuak planifikatzea, kontrolatzea, erabiltzea, kontserbatzea eta deuseztatzea, Nafarroako Parlamentuko informaziorako eta dokumentaziorako sarbidea emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko dokumentuak kudeatzeko sistemak oinarrian ditu Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Politika (DEKP) eta hura garatzen duen Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Eredua (DEKE).

3. Nafarroako Parlamentuko Artxiboak honela parte hartzen du dokumentuak kudeatzeko sisteman:

a. Nafarroako Parlamentuko dokumentazioa kudeatzeko ardura hartuz, behin espedienteak itxi edo amaitu eta Artxibora transferitzen direnean.

b. Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Politikan (DEKP) ezarritakoa eguneratuz eta aplikatuz.

c. Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Eredua (DEKE) osatzen duten kapituluetan ezarritakoa landuz, eguneratuz eta aplikatuz.

d. Sailkapen Taula eta artxibo-tresna guztiak landuz, eguneratuz eta aplikatuz.

e. Nafarroako Parlamentuko dokumentazioaren kontserbazioa, sarbidea eta hedapena bermatuz.

**7. artikulua.** Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Politika (DEKP)

1. Nafarroako Parlamentuan dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikak ezarriko ditu dokumentu elektronikoak kudeatzeko irizpideak.

2. Nafarroako Parlamentuko dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika Idazkaritza Nagusiaren ebazpen batez onetsiko da, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko.

**8. artikulua.** Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Eredua (DEKE)

Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Ereduak (DEKE) estrategia argi eta zehatza erakusten du Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Politikan (DEKP) ezarritakoa gauzatzeko.

**9. artikulua.** Artxibo-tresnak

1. Artxibo-tresnak berriazko helburuetarako erabiltzen diren tresnak dira, dokumentuak kudeatzeko prozesuei sostengua ematen dietenak Nafarroako Parlamentuan garatu eta ezartzea lortzeko, Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Ereduaren (DEKE) bitartez.

2. Artxibo-tresnak erabilera orokorrekoak dira Nafarroako Parlamentuko zerbitzu guztietarako, edozein izanik ere dokumentuak eta espedienteak kudeatzeko erabilitako teknologia.

3. Artxibo-tresnak mantendu eta eguneratzea Nafarroako Parlamentuko Artxiboari dagokio. Horretan lankide izanen ditu Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea eta egokitzen jotzen denean lanean jartzen diren zerbitzuak.

4. Artxibo-tresna hauek erabiltzen dira:

a. Sailkapen Taula (I. eranskina). Tresna honek irizpide bateratua ezartzen du Nafarroako Parlamentuko dokumentuak sailkatzeko eta antolatzeko, zenbait irizpide funtzionali jarraituz. Dokumentuak sailkatzeko sistema honen oinarrian egitura hierarkiko eta logiko bat dago, Nafarroako Parlamentuaren eginkizunak eta jarduerak islatzen dituena.

1. Dokumentu guztiak, sortzen edo jasotzen diren unetik, Sailkapen Taularen arabera identifikatu eta sailkatuko dira.

2. Nafarroako Parlamentuko langileentzako sarbide-baimenak Sailkapen Taulako dokumentu-serieetan oinarrituta definituko dira. Taula horretan serie bakoitzeko zehaztuko da zein erabiltzaile taldek izanen dituzten baimenak serie horretako espedienteetarako.

b. Halaber, Dokumentu Balorazioko Taulak aplikatuko zaizkie Sailkapen Taulan definitutako dokumentu-serieei.

c. Nafarroako Parlamentuko Metadatu Hitzegiak (II. eranskina) erakusten du zer metadatu erantsi behar diren dokumentu, espediente eta sinadura elektronikoen, abiapuntutzat hartuta Dokumentu Elektronikoen Kudeatzeko Metadatu Eskemak (e-DEKME) ezarritako eredia. Eskema hori dokumentu elektronikoen kudeatzeko politikari buruz Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalean ezarritako elkarreragingarritasun arau teknikoari lotuta dago. Ahalbidetzen du Nafarroako Parlamentuko dokumentuak berreskuratzea, kontsultatzea, transferitzea, baloratzea eta haietarako sarbidea izatea. Halaber, sistemen arteko elkarreragingarritasuna bermatzen du, eta dokumentuak prozesu edo izapide batean baino gehiagotan baliatzea sustatzen du.

d. Dokumentu Tipologiaren Katalogoak (III. eranskina) ahalbidetzen du argi identifikatzea Nafarroako Parlamentuko espedienteak osatzen dituzten tipologiak. Gainera, arautu eta zehaztu egiten ditu espedienteetako eta dokumentu serieetako tipologiak, bai eta horiek metadatu gisa erabiltzeko modua ere; horrela ahalbidetzen du

dokumentu motaren arabera bilaketak egitea eta prozesu automatizatuak aplikatzea dokumentu horien gain jarduteko, esaterako, espediente batek tipologia berekoak diren dokumentuak ezabatzeko, Dokumentu Balorazioko Taulatik abiatuta.

e. Dokumentuen Formatuen Katalogoak (IV. Eranskina) ezartzen du zer formatu dauden onartuta eta normalizatuta dokumentu elektronikoen izapidetzean eta kontserbazioan. Oinarritzat hartzen ditu gaiari buruzko nazioarteko estandarrak eta hitzarmenezko arauak, eta Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalean (EEN), zehazki, haren Estandarren Katalogoan, ezarritakoa.

f. Dokumentu Balorazioko Taulatan azaltzen dira, Nafarroako Parlamentuko dokumentu-serie bakoitzerako, kontserbazioaldiak eta irisgarritasun epeak; eta adierazten da zein dokumentu gorde behar diren modu iraunkorrean eta zein ezabatu behar diren osorik edo partez.

g. Kontserbazio eta Irisgarritasun Egutegiak erabaki zehatzak jasotzen ditu kontserbazioaldiei, irisgarritasunari eta ezabaketari edo modu iraunkorrean kontserbatzeari dagokienez, Foru Administrazioak sortutako dokumentu-serie guztietarako, abiapuntutzat hartuta Dokumentu Balorazioko Taulatan zehaztutakoa.

h. Behar diren deskribapen-tresnak; zehazki, honako hauek:

1. Erregistro topografikoak. Ahalbidetzen dute Artxiboa osatzen duten instalazio-unitateen tipologia kontrolatzea (kutzak, liburuak, soinu-grabazioak, irudi- eta soinu-grabazioak, planoak, eta abar). Ordena zenbakia, edukiaren deskribapen laburra, jatorria (seriearen gakoaren bidez) eta muturretako datak biltzen dituzte.

2. Inbentario Orokorra. Dokumentu serie guztiak deskribatzen ditu, behar bezala sailkatuta eta ordenatuta, eta osagai hauek ditu: signatura (unitate mota eta zenbakia adierazita), edukiaren deskribapena, seriearen gakoa, sartutako dokumentazioaren muturretako urteak, eta Sailkapen Taulako digituak.

3. Katalogo Orokorra. Osagai hauek ditu: data, dokumentu mota, seriea eta seriearen barneko zenbakia adierazten dituen gakoa, egilea eta egilearen talde parlamentarioa edo foru parlamentarien elkarte, gaia, karpeten kopurua, signaturak eta oharak.

#### IV. KAPITULUA

##### Nafarroako Parlamentuaren dokumentu ondarearen balorazioa eta kontserbazioa

**10. artikulua.** Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea

1. Honako hauek osatzen dute Nafarroako Parlamentuko Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordea:

a. Idazkari nagusia, batzordeko buru aritzen dena.

b. Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuko burua.

c. Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologia Zerbitzuko burua.

d. Kudeaketa Parlamentarioaren Ataleko burua.

2. Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Dokumentuen bizi zikloan zehar haien kontserbazio epeak ezartzea, kontuan izanik irizpide administratiboak, juridikoak eta historikoak, eta haien irisgarritasuna erabakitzea.

b) Dokumentuak ebaluatzeko prozedura ezartzea, identifikatuz eta bereiziz zein espediente edo dokumentu gorde behar diren beren informazio-eta lekukotasun-balioengatik eta zein suntsitzen ahal diren behin agortuta beren balio administratibo edo historikoa.

c) Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-ondareko serie bakoitzerako sarbidea emateko irizpideak ezartzea, legeria indardunarekin bat etorritik.

d) Nafarroako Parlamentuko funtsezko dokumentuak identifikatu eta kalifikatzea.

**11. artikulua.** Dokumentu Balorazioko Taulak egitea

1. Nafarroako Parlamentuko Artxiboak, bere ekimenez edo kudeaketa-unitateren batek eskatuta, Sailkapen Taulako dokumentu-serieak Dokumentu Balorazioko Tauletan oinarrituta baloratzeko proposamenak egin behar ditu.

2. Dokumentu Balorazioko Taulak egiteko proposamenak Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordean balioztatuz eta onetsi behar dira.

3. Zein dokumentu deuseztatu behar diren erabakitzeko irizpide hauek erabiliko dira:

a. Irizpide orokor gisa, Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak dokumentu hauek deuseztatzea erabakitzen ahalko du:

1. Jatorrizko dokumentuak, daukaten informazioa berreskuratu ezin izateraino hondatuta badaude.

2. Jatorrizko dokumentuak, daukaten informazio adierazgarria beste dokumentu batzuetan bilduta badago.

3. Jatorrizko hainbat ale eginez sortu diren dokumentuak, entitate sortzaileak jatorrizko ale bat gordetzen badu espediente nagusian.

4. Jatorrizko bigarren aleak edo kopia bakarrak, administrazio publiko batek beretzat gordetakoak, beste administrazio bati jatorrizko dokumentuak igorri eta gero, legez edo erregelamenduz araututako eginkizun batean ari dela.

5. Jatorrizko dokumentuak, balio laburrekoak badira nabarmenki, edo entitate sortzailearen inongo administrazio-prozeduratan sartzen ez badira.

6. Ezin dira desegin dokumentuak, pertsona edo erakunde publikoen eskubide eta betebeharren froga-balioa daukaten bitartean.

b. Deuseztatzen diren jatorrizko dokumentu guztien lekuko bat gordeko da. Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak kasu bakoitzean erabakiko du aztertutako seriearen ezaugarriak hobekien finkatzen dituen laginketa-teknika.

c. Oro har, artxiboaren arloko eskumenak dituen zerbitzuko buruak honako hauek deuseztatzen ahal ditu baimen beharrik gabe:

1. Dokumentuen erreproduzioak edo kopia arruntak, jatorrizko dokumentua erakundean berean egoera onean gordeko delako bermea baldin badago.

2. Informazioa osatzeko helburua duten dokumentuak, espediente baten parte ez direnean.

3. Zirriborroak, kopiak, minutak eta, oro har, jatorrizko dokumentuak prestatzeko prozesuan erabiltzen den dokumentazioa.

##### **12. artikulua.** Zaintza eta transferentzia

1. Parlamentuko organo eta unitate administrazioetako kudeatzen duten dokumentazioa zainduko dute, eta haien arduradunek begiratuko dute dokumentazio hori Sailkapen Taula Orokorrean ezarritako serieetan antolatzen dela, korrelazio-zenbakiarekin eta urtez urteko zenbakiarekin.

2. Dokumentazioa, bai fisikoa bai elektronikoa, Nafarroako Parlamentuko Artxiboak transferentzietarako prestatutako egutegiaren arabera transferituko da, eta legegintzaldiaren amaieran, betiere.

3. Administrazio-unitate eskudunetan egonen dira, bukatu arte, unitate horien eginkizunekin lotutako legezko edo erregelamenduzko betebeharrak betetzeari dagozkion espedienteak eta dokumentuak.

4. Beren karguaren kariaz dokumentazio ofiziala eskuratzen duten pertsonak dokumentazio hori Artxihoari transferitu beharko diote beren eginkizunak bukatutakoan.

5. Dokumentazio fisikoaren transferentziak eta horien barne-antolamendua bat etorriko dira Artxihoak ezarritako jarraibide teknikoekin: dokumentu fisikoak euskailurik gabe transferituko dira, kutxa normalizatueta, kopiak eta zirriborroak deuseztatuta. Serie osoak igorriko dira, behar bezala ordenatuta, justifikatutako kasu berezietan izan ezik.

6. Espediente elektronikoak, izapidetze fasea bukatutakoan, itxita eta foliokatuta transferituko dira, eta aurkibide elektronikoa erantsiko da, kudeaketa-unitateko arduradunaren sinadura elektronikoarekin. Espedienteak transferitzen direnean, haien gaineko erantzukizuna kudeaketa-unitatetik Artxibora pasatuko da.

7. Artxihoan dokumentuen ohiz kanpoko sarreak edo transferentziak jasotzen direnean, dohaintza, lagapena, erosketa, legatua edo beste edozein arrazoi tarteko, beharrezkoa izanzen da Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak onespina eman eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak hura berrestea, dokumentu horiek jaso, tratatu eta zaintzeko.

### **13. artikulua.** Kontserbazioa eta babesa

1. Nafarroako Parlamentuko Artxihoak prebentzio-neurriak hartuko ditu dokumentazio fisikoak degradatzea saihestu eta egoera onean mantentzeko eta haren kontserbazioa bermatzeko.

a. Gordailuak beren helbururako leku egokietan kokatuko dira, eta mota guztietako dokumentu-euskarriak kontserbatzeko behar diren altzariak edukiko dituzte, bai eta tenperatura, hezetasun eta aireztapen baldintza egokiak ere.

b. Irudi- eta soinu-dokumentuak euskarri mota guztietan babesteko irizpideak aplikatuko dira, Artxihoak onetsitako gidaleroei jarraituz.

2. Dokumentu fisikoak instalazio egokietan gordetako dira, seguru daudela bermatzeko. Instalazio horiek lapurreta, sute, izurri eta abarren kontrako berme egokiak izanzen dituzte.

3. Nafarroako Parlamentuko Artxihoaren ardurak da dokumentazio fisikoak eta elektronikoa kudeatzea eta kontserbatzea, behin itxita dagoe-

nean. Eginbehar hori betetz, Artxihoak dokumentuen benetakotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, erabilgarritasuna eta trazabilitatea bermatu ahal izateko eragiketarako eginen ditu tresna informatiko egokiekin.

4. Nafarroako Parlamentuko Artxihoak, Nafarroako Parlamentuko segurtasunaren arduradunekin lankidetzan, ezbeharren aurrean jarduteko larrialdi plana eginen du eta eguneraturik edukiko du; halaber, funtsezko dokumentuetarako programa bat eginen du, Artxihoak gordetzen duen dokumentazioaren eta informazioaren segurtasuna arriskuan jar lezaketan gorabeheren aurrean segurtasuna bermatzeko duena.

## **V. KAPITULUA**

### **Nafarroako Parlamentuaren dokumentu-ondarerako sarbidea eta haren zabalkundea**

#### **14. artikulua.** Helburua

1. Nafarroako Parlamentuak bere artxihoak dokumentaziorako sarbidea bermatzeko du. Arduratuko da dokumentuak erabiltzeko eskuragarri egon daitezen deskribapen- eta informazio-tresna egokien bitartez.

2. Sarbide hori Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan eta hura garatzen duten arauetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

#### **15. artikulua.** Sarbidearen araubidea

1. Dokumentazio fisikorako sarbidearen araubidea bat etorriko da Parlamentuko Erregelamenduan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoarekin eta honako erregelamendu honetan berariaz jasotakoarekin.

2. Artxihoak behar diren neurriak hartuko ditu jatorrizko dokumentuen osotasuna zaintzeko, haien kontsultak kontserbazioa arriskuan jar dezakeenean.

3. Parlamentuko sarbide- eta segurtasun-eremuan definitutako erabiltzaile-profilak eta -rolak erabiliko dira artxiho elektronikoko tresnara sartzeko.

4. Dokumentaziorako sarbidea ukatzen ahalko da soilik Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan eta hura garatzeko arauetan edo arloko legerian xedatutako kasuetan.

5. Irizpide hauen bidez arautuko da Artxihoak dokumentaziorako sarbidea:

a. Hogeita hamar urte baino gehiago dituzten Nafarroako Parlamentuko Artxihoak dokumentuak historikotzat joko dira eta sarbide librea izanen

dute. Pertsonen intimitatea bermatzearen, ezin izanen dira kontsultatu parlamentarien edo Parlamentuaren zerbitzupeko langileen kontu pertsonalak ukitzen dituzten espedienteak harik eta haien heriotzatik hogeita bost urte igaro arte, edo, ezaguna ez bada, dokumentua bukatu zen egunetik berrogeita hamar urte igaro arte. Kargu publiko batean aritzearekin edo kargu publikoa lortzeko betekizunekin zerikusia duten kontuak ez dira kontu pertsonaltzat joko.

b. Hogeita hamar urte baino gutxiago dituzten Nafarroako Parlamentuko dokumentuek indarrari eusten diote eta indarraldian dauden dokumentutzat jotzen dira. Dokumentu horietarako sarbidea bat etorriko da Nafarroako Parlamentuan gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruz indarra duen araudiarekin.

c. Ikerketa-batzordeei eta horiekin zerikusia duten Legebiltzarreko organoen bilkura sekretuei dagokien dokumentazioa isilpekoa izanen da.

d. Parlamentarien Interesen Erregistroa publikoa da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak aurreikusten duen moduan.

e. Gordailu-erabakietatik eratorritako dokumentazioa erabaki bakoitzean ezarritako moduan egonen da eskuragarri.

**16. artikulua.** Artxiboko informaziorako sarbi-dearen modalitateak

1. Artxiboan eskuragarri dagoen informaziorako sarbide hauek egonen dira:

a. Dokumentazio elektronikoa gordetzen den tresna informatikoetan kontsulta egitea.

b. Kontsulta egitea Artxiboak horretarako dituen bulegoetan.

c. Kopia edo erreproduktzioak jasotzea. Formatu elektronikoa jasoko dira, lehentasunez.

2. Informazioa eskatzea dokumentazioa zuzenean erabili gabe. Artxiboan gordetzen diren dokumentu eta espedienteak egin dituzten Parla-

mentuko administrazio-unitateek jatorrizkoak mailleguz emateko eskatzen ahalko dute 5 egunerako. Epe hori amaitutakoan dokumentuak itzuli edo maileguaren luzapena eskatu beharko dute. Maileguak iraun bitartean, hartu izanaren agiria jaso arte, pertsona edo unitate eskatzailea izanen da dokumentazioaren osotasunaren erantzulea.

**17. artikulua.** Informazio eskaerak.

Erabiltzaileek informazioa eskatzen ahalko dute –Artxiboko unitate arduradunak egindako produktu dokumental gisako informazioa– Artxiboko datu-baseetan, sistema informatikoetan eta deskribapen-tresnetan eskuragarri dagoen dokumentazioari buruz, eta horrek ez die Legebiltzarreko dokumentaziorako zuzeneko sarbiderik emanen.

**18. artikulua.** Bisitak.

Hezkuntza, lanbide edo ikerketa helburuetarako Nafarroako Parlamentuko Artxiboa bisitatu nahi duten pertsonak alde aurretik baimena eskatu beharko diote Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari. Artxiboko langileek lagunduko diete bisitan.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Erregelamendu honek indarra hartzearekin batera indargabeturik geratuko dira berarekin kontraesanean dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2000ko maiatzaren 15ean onetsitako Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauak, V. Kapituluaren ezarritakoa salbu (langileei esleitutako eginkizunei buruzkoa).

**Azken xedapena.**

Erregelamendu hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Parlamentuko Mahaiak erabakitzen duenean hartuko du indarra, administrazio elektronikoen ezarpenaren arabera.



## I. eranskina. Nafarroako Parlamentuaren Sailkapen Taula

### Laburpen-taula

Jarraian, Sailkapen Taularen laburpen bat dator, hura osatzen duten eginkizunekin.

#### 1. KUDEAKETA PARLAMENTARIOA

- 1.1. Legegintza eginkizuna
- 1.2. Gobernuaren lanaren sustapen eginkizuna eta zuzendaritza politikokoa
- 1.3. Gobernuaren lanaren kontrol eginkizuna eta informatzekoa
- 1.4. Organo parlamentarioek Gobernua kontrolatzea
- 1.5. Jurisdikzio konstituzionalarekiko harremana
- 1.6. Herritarren parte-hartzea jarduera parlamentarioan
- 1.7. Hauteskundeak eta karguak izendatzea
- 1.8. Ganberaren osaera
- 1.9. Ganberaren funtzionamendua

#### 2. ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

- 2.1. Antolaketa administratiboa
- 2.2. Gai juridikoen kudeaketa
- 2.3. Jarduera ekonomikoaren kudeaketa eta kontrola
- 2.4. Giza baliabideen kudeaketa
- 2.5. Informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketa
- 2.6. Baliabide informatikoak eta teknologia berriak
- 2.7. Erakunde-harremanak
- 2.8. Ganberaren kanpo-proiektzioa
- 2.9. Organo parlamentarioekiko harremanak

### Sailkapen Taula

Jarraian dator Nafarroako Parlamentuaren Sailkapen Taula osoa, hura osatzen duten dokumentu-serieak barne. Sailkapen Taula 4 mailatan egituratuta dago:

1. Eginkizunen multzoa
  - 1.1 Eginkizunak
    - 1.1.1 Dokumentu-serieak
      - 1.1.1.1 Azpiserieak

## 1. KUDEAKETA PARLAMENTARIOA

### 1.1. Legegintza eginkizuna

1.1.1. Foru-lege proiektuak ..... LEY

Nafarroako Gobernuak bidalitako foru-lege proiektuak biltzen ditu.

1.1.2. Foru-lege proposamenak ..... PRO

Parlamentariak, talde parlamentarioek, udalek edo herritarrek aurkeztutako foru-lege proposamenak biltzen ditu.

1.1.3. Diputatuen Kongresurako lege-proposamenak.....PRC

Diputatuen Kongresurako lege-proposamenak biltzen ditu, Nafarroako Parlamentuak onetsiak Ganbera horretan izapidetu daitezten.

1.1.4. Lege-maila parlamentarioko beste testu batzuk

Biltzen ditu Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua eta horien aldaketak, baita aurrekoen maila bera duen barruko beste edozein xedapen ere.

1.1.4.1. Parlamentuko Erregelamendua.....OTLR

1.1.4.2. Parlamentuko Langileen Estatutua.....OTLE

1.1.5. Foru lege-dekretuak ..... DLF

Biltzen ditu ohiz kanpoko eta premiazko beharrianak dauden kasuetan Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen foru lege-dekretuak.

1.1.6. Legegintzako foru-dekretuak ..... DLF

Biltzen ditu botere legegileak aurrez eskatuta gobernuak emandako legegintzako foru-dekretuak, lege-mailako xedapenak. Zenbait xedapen arauemaileraren testu artikuluduna edo testu bategina izan daiteke.

1.1.7. Subsidiarotasunaren kontrola Europako legegintzako ekimenetan.....UES

Biltzen ditu Europako legegintzako ekimenen subsidiarotasun-printzipioa kontrolatzeko Parlamentuak sortutako dokumentuak.

## 1.2. Gobernuaren lanaren sustapen eginkizuna eta zuzendaritza politikokoa

### 1.2.1. Konfiantza ematea eta kentzea

Honako hauei buruzko espedienteak biltzen ditu: Nafarroako Gobernuko lehendakariaren inbestidura, konfiantza-arazoa –Nafarroako Gobernuko lehendakariak Parlamentuan aurkezten du– eta zentsura-mozioa –Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren erantzukizun politikoa exijitzen du–.

1.2.1.1. Lehendakariaren inbestidura.....PGBI

1.2.1.2. Konfiantza-arazoa.....PGBC

1.2.1.3. Zentsura-mozioa.....PGBM

### 1.2.2. Politika orokorrari buruzko eztabaidak

Biltzen ditu Nafarroako Gobernuak interes politikoko edozein gairi buruz Parlamentuan eztabaidatzeko bidali dituen komunikazioak, bai eta aurkeztutako erabaki-proposamenak eta egindako eztabaidaren ondorioz hartutako erabakiak ere.

1.2.2.1. Gobernuaren komunikazioak .....DPGC

1.2.2.2. Osoko bilkura monografikoa, foru parlamentariak  
hala eskatuta .....DPGP

1.2.3. Mozioak.....MOC

Biltzen ditu parlamentariak edo talde parlamentarioek Legebiltzarrari aurkeztutako mota horretako ekimenak.

1.2.4. Adierazpen politikoak .....DEC

Eledunen Batzarrari aurkeztutako ekimenak biltzen ditu.

## 1.3. Gobernuaren lanaren kontrol eginkizuna eta informatzekoa

1.3.1. Interpelazioak.....ITP

Gobernuari planteatutako mota horretako ekimenak biltzen ditu, Osoko Bilkuraren aurrean politika orokorreko gai baten inguruan duen jarrera, jarduketak edo proiektuak azaldu ditzan.

### 1.3.2. Galdera parlamentarioak

1.3.2.1. Ahozko galderak .....POR

Biltzen ditu Gobernuari edo haren kideei gai zehatzen inguruan egindako galderak, ahoz izapidetu eta Osoko Bilkuran edo batzorde batean erantzuten direnak.

- 1.3.2.2. Idatzizko galderak ..... PES  
Biltzen ditu Gobernuari edo haren kideei gai zehatzen inguruan egindako galderak, idatziz erantzutekoak.
- 1.3.3. Informazio-eskaerak ..... PEI  
Biltzen ditu Parlamentuaren lehendakariaren bidez parlamentariak Nafarroako administrazio publikoei zuzendutako informazio-eskaerak.
- 1.3.4. Agerraldiak ..... COM  
Biltzen ditu Gobernuko kideek eta beste kargu publiko batzuek batzorde batean egindako agerraldiak, haien ekimenez edo Eledunen Batzarrak eskatuta egindakoak.
- 1.3.5. Lan-bilkurak ..... SET  
Pertsona, talde, elkarte, erakunde edo entitateen harrerari dagozkion espedienteak biltzen ditu, haien interesekoak diren edo ukitzen dituzten gaiak Parlamentuko batzordeetan edo bestelako organoen aurrean azaltzeko bertaratzen direnean sortzen direnak, informazio- edo deliberazio-saioetan bilduak.
- 1.3.6. Bisitak ..... VST  
Biltzen ditu talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek eskatu eta Mahaiak onartutako bisitei buruzko espedienteak, helburu informatibokoak eta Parlamentutik kanpoko eremu edo tokietan egiten direnenak.
- 1.3.7. Baimenak ..... AUT  
Biltzen ditu Estatuarekin edo beste autonomia-erkidego batzuekin negoziatutako lankidetzak-hitzarmenak edo -akordioak gauzatzeko Gobernuari emandako baimenari dagozkion prozedura parlamentarioak.
- 1.3.8. Gobernuaren planak eta programak ..... PPG  
Biltzen ditu Parlamentuaren erabaki bat eskatze aldera Gobernuak bidalitako planen edo programen espedienteak, horien inguruan Parlamentuak hartutako ebazpenak barne.
- 1.3.9. Aurrekontuaren betearazpena eta Ogasunari buruzko informazioa ..... EPH  
Biltzen ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorak betearazteari buruzko espedienteak.
- 1.3.10. Nafarroako Kontseiluaren irizpenak ..... DCN  
Espediente bereizitan biltzen dira Parlamentuak eskatuta Nafarroako Kontseiluak ematen dituen irizpenak, baldin eta ez badute loturarik aribidean dauden legegintzako, kontroleko edo administrazioiko beste espediente batekin.

## 1.3.11. Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiak..... GOB

Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiak biltzen ditu. Nafarroako Parlamentura igortzen dira 2016ko maiatzaren 11z geroztik. Isilpeko dokumentutzat jotzen dira, izan ditzaketen datu pertsonalak babesteko asmoz.

## 1.3.12. Ikerketa- eta azterketa-batzorde bereziak..... CIE

Biltzen du batzorde horiek haien eginkizunen barnean sortutako dokumentazio guztia.

## 1.3.13. Ponentziak ..... PON

Biltzen ditu ponentziek haien eginkizunen barnean sortutako dokumentuak eta ponentziak eratzeko onartu ez diren eskaerak.

**1.4. Organo parlamentarioek Gobernua kontrolatzea**

## 1.4.1. Kontuen Ganbera

Biltzen ditu Kontuen Ganberaren funtzionamenduari dagozkion espedienteak (urteko memoria, lehendakariaren hautaketa, plantillako langileak, ondasunak eta instalazioak, Parlamentuko Mahaiak eskudantziak eskuordetzea, etab.) eta hark egiten dituen fiskalizazio edo bestelako txostenak.

## 1.4.1.1. Fiskalizazio-txostenak..... CCOI

## 1.4.1.2. Beste txosten batzuk..... CCOO

## 1.4.2. Arartekoa ..... DFP

Nafarroako Arartekoak egindako txostenak biltzen ditu: urteko txostena eta txosten bereziak edo monografikoak. Erakundeak kexak konpontzeko egiten dituen idatziak ere biltzen ditu.

**1.5. Jurisdikzio konstituzionalarekiko harremana**

Sartutako serieetan biltzen da konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoei eta arazoei, eskumen-gatazkei eta babes-errekurtsoei dagokien dokumentazioa.

## 1.5.1. Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsu..... RTCR

## 1.5.2. Konstituzio-kontrakotasuneko arazoak..... RTCI

## 1.5.3. Eskumen-gatazkak..... RTCC

## 1.5.4. Babes-errekurtsuak..... RTCA

**1.6. Herritarren parte-hartzea jarduera parlamentarioan**

## 1.6.1. Herritarren eskaerak..... PET

Herritarrek Parlamentuan aurkezten dituzten eskaerak biltzen ditu.

## 1.6.2. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak..... ESC

Biltzen ditu herritarrek informazio publikoa eskuratzeko Parlamentuan aurkezten dituzten eskaerak.

### 1.7. Hauteskundeak eta karguak izendatzea

Honako hauen hautaketari eta izendapenari buruzko dokumentazioa sartzen da: organo parlamentarioetako (Kontuen Ganbera eta Nafarroako Arartekoa) karguak, senatari autonomikoa, Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagaiak, Nafarroako Kontseiluko kideak eta Gobernu-kontseilu eta -batzordeetako eta beste organismo batzuetako kideak.

1.7.1. Kontuen Ganberako Lehendakaria .....	ELCP
1.7.2. Nafarroako Arartekoa .....	ELCD
1.7.3. Senatari autonomikoa .....	ELCS
1.7.4. Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagaiak .....	ELCT
1.7.5. Nafarroako Kontseilua .....	ELCC
1.7.6. Gobernu-kontseilu eta -batzordeetako eta beste organismo batzuetako kideak .....	ELCO
1.7.7. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendaria .....	ELCB
1.7.8. Nafarroako Parlamentuak izendatu edo hautatu beharreko beste kargu batzuk .....	ELCR

### 1.8. Ganberaren osaera

1.8.1. Lehendakaritza .....	PRE
-----------------------------	-----

Lehendakaritzako kabinetearen osaerari buruzko dokumentazioa.

#### 1.8.2. Mahaia eta Eledunen Batzarra

Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren osaerari buruzko dokumentazioa.

1.8.2.1. Mahaia .....	MES
-----------------------	-----

1.8.2.2. Eledunen Batzarra .....	JUP
----------------------------------	-----

#### 1.8.3. Batzordeak eta ponentziak

Batzordeen osaerari buruzko dokumentazioa, ikerketa- eta azterketa-batzorde bereziak barne, baita ponentziena ere, Europako Gaietarako Ponentzia barne.

1.8.3.1. Batzorde arruntak .....	COO
----------------------------------	-----

1.8.3.2. Ponentziak .....	PON
---------------------------	-----

1.8.3.3. Europako Gaietarako Ponentzia .....	PAE
--	-----

1.8.3.4. Ikerketa- eta azterketa-batzorde bereziak .....	CEIE
--	------

#### 1.8.4. Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra

Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren osaerari buruzko dokumentuak.

1.8.4.1. Osoko bilkura..... PLE

1.8.4.2. Batzorde Iraunkorra .....CPE

#### 1.8.5. Parlamentariak

Foru parlamentarien kargua hartzeari, espediente pertsonalei eta interesen erregistroari buruzko dokumentuak.

1.8.5.1. Kargua hartzea ..... PARC

1.8.5.2. Espediente pertsonalak..... PARE

1.8.5.3. Interesen Erregistroa ..... PARR

1.8.6. Talde parlamentarioak..... GRP

Talde parlamentarioen, foru parlamentarien elkarten eta talde mistoaren eraketaren eta osaeraren inguruan sortutako dokumentazioa.

### 1.9. Ganberaren funtzionamendua

1.9.1. Erregelamendua garatzeko arauak eta ordainsari, diru-esleipen eta kalte-ordainen arauak..... NDR

Parlamentuko Erregelamendua garatzeko arauak biltzen ditu, baita ordainsari, diru-esleipen eta kalte-ordainen arauak ere.

#### 1.9.2. Deialdiak

Osoko Bilkuraren, batzordeen, ponentzien, Mahaiaren, Eledunen Batzarraren eta Batzorde Iraunkorraren deialdiak, deialdi-aldaketak eta deialdiak bertan behera uzteak biltzen ditu. Bilkura bakoitzeko, espediente bat irekitzen da, eta eranskinak ere barne hartzen ditu.

1.9.2.1. Osoko Bilkura ..... CPL

1.9.2.2. Batzordeak.....CCMP

1.9.2.3. Ponentziak..... CPO

1.9.2.4. Mahaia..... CME

1.9.2.5. Eledunen Batzarra ..... CJP

1.9.2.6. Batzorde Iraunkorra .....CCP

### 1.9.3. Aktak

Osoko Bilkuraren, batzorde eta ponentzien, Mahaiaren, Eledunen Batzarraren eta Batzorde Iraunkorren aktak hartzen ditu barnean. Legealdiaren hasieran espediente bat irekitzen da, eta legealdiaren amaieran, itxi.

1.9.3.1. Osoko Bilkura .....	ACPL
1.9.3.2. Batzordeak.....	ACCO
1.9.3.3. Ponentziak.....	ACPO
1.9.3.4. Mahaia.....	ACME
1.9.3.5. Eledunen Batzarra .....	ACJP
1.9.3.6. Batzorde Iraunkorra .....	ACCP

### 1.9.4. Bilkuretako soinu-grabazioak

Biltzen ditu Osoko Bilkuraren, batzorde eta ponentzien eta bestelako ekitaldien (hitzaldiak, prentsaurrekoak, ekitaldi instituzionalak, etab.) bilkuretako soinu-grabazioak. Saio bakoitzeko, espediente bat irekitzen da.

1.9.4.1. Osoko Bilkura .....	GSPL
1.9.4.2. Batzordeak.....	GSCO
1.9.4.3. Ponentziak.....	GSPO

### 1.9.5. Bilkuretako irudi- eta soinu-grabazioak

Biltzen ditu Osoko Bilkuraren, batzorde eta ponentzien eta bestelako ekitaldien (hitzaldiak, prentsaurrekoak, ekitaldi instituzionalak, etab.) bilkuretako irudi- eta soinu-grabazioak. Saio bakoitzeko, espediente bat irekitzen da.

1.9.5.1. Osoko Bilkura .....	GIPL
1.9.5.2. Batzordeak.....	GICO
1.9.5.3. Ponentziak.....	GIPO

### 1.9.6. Itzulpen, interpretazio eta transkripzioei buruzko txostenak..... TRA

Biltzen ditu bilkuren garapenaren ondorioz eska daitezkeen itzulpen, interpretazio eta transkripzioei buruzko txostenak.



## 2. ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

### 2.1. Antolaketa administratiboa

Biltzen ditu Parlamentuaren antolaketa eta funtzionamendurako barne-arauak, arauak aplikatzeko egiten diren jarraibideak eta prozedurak, memoriak eta estatistikak, eta barne-komunikazioak.

2.1.1. Antolaketa eta funtzionamendurako barne-arauak .....	OAN
2.1.2. Jarraibideak eta prozedurak .....	OAI
2.1.3. Memoriak eta estatistikak .....	OAM
2.1.4. Barne-komunikazioak .....	OAC

### 2.2. Gai juridikoen kudeaketa

#### 2.2.1. Esku-hartzeak epaitegi eta auzitegietan

Biltzen du Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek arlo zibileko, penaleko, auzietako eta sozialeko epaitegi eta auzitegietan duten esku-hartzeari buruzko espedienteen dokumentazio guztia.

2.2.1.1. Arlo zibila, penala eta auzietakoa..... TRCP

2.2.1.2. Arlo soziala .....

2.2.2. Ondare-erantzukizunaren eskaerak .....

Biltzen du ondare-erantzukizunari dagokionez jasotako eskaerekin zerikusia duen dokumentazio guztia.

2.2.3. Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak .....

Nafarroako Parlamentuarekin zerikusia duten kexa, iradokizun eta erreklamazioei buruzko dokumentazioa.

### 2.3. Jarduera ekonomikoaren kudeaketa eta kontrola

2.3.1. Obra, zerbitzu eta hornigaien kontratazioa .....

Biltzen ditu administrazio-prozedura bera erabiltzen duten obra, zerbitzu eta hornidurekin zerikusia duten espediente guztiak.

2.3.2. Ondasun eta inbentarioen kudeaketa .....

Biltzen ditu Parlamentuaren jabetzakoak diren ondasunen kudeaketari buruzko espedienteak, horien antolaketari eta funtzionamendukudeaketari dagokienez; zehazki, honako hauek: artelanen aldi baterako lagapenak, gordailu-lagapenen onarpena eta dohaintzak; artelanen mantentze-lanak eta zaharberritzea; eta liburu baliotsuak eta zaharrak erostea eta zaharberritzea. Era berean, serie horretan sartzen dira ondasunen eta artelanen inbentarioak.

### 2.3.3. Kontu-hartzailletza eta aurrekontu-kudeaketa

Biltzen ditu aurrekontua egiteari eta horren aldaketei buruzko espedienteak, aurrekontua betearazteari buruzkoak, aurrekontua eta kontuak likidatzeari buruzkoak eta kontu-hartzailletzako beste gai batzuei buruzkoak.

2.3.3.1. Aurrekontuaren lanketa.....	PREL
2.3.3.2. Aurrekontu-aldaketa.....	PRMO
2.3.3.3. Aurrekontuaren betearazpena.....	PREJ
